

Bakartasunari aurre egiteko, Adinkide

65 urtez gorako pertsonak laguntzeko boluntario eta erabiltzaile sarea eratu nahi du fundazioak herrian / 4

Kultura demokratikoaz eztabaidatu dute hautetsiek eta adituek Manuel Lekuona kultur etxean / 2

Beterri-Buruntza eskualdeko lehen sektorea sustatzeko 'Km0' proiektua martxan da / 5

Lauko Finala jokatzeko sailkatu dira Ostadar SKT Saskibaloiko erregionalak / 11

Udaltopek hamargarrenez ekin dio; inoizko jende gehiena bildu du topaketak / 3

Urtero moduan herritarrek ez dute hutsik egin, eta Udaberriko Bertso Saioaz gozatu dute / 6-7

Iruñeako Triatloi Erdian lehiatu dira Trinko taldeko lau kide, proba haizetsu eta gogorrean / 12



"Denboraren poderioz lortuko dugu"

Iraia Iparragirrek Anoetako derbi historikoa jokatu du / 10

**ELECTRICIDAD
ARREGUI**

600 857 586 
www.electricidadarregui.com



Aukera paregabeak eta deskontu bereziak Dyson produktuetan:



Hegalik gabeko haizagailuak
• Hotza eta beroa
• %75 arte isilagoak



Poltsarik gabeko xurgagailuak



Eskuzko xurgagailuak
• Koltxoientzako
• Bateriarekin
• Poltsarik gabe

Hautetsiak eta adituak, kultura demokratikoaz

Gipuzkoako Aldundiak 'Gipuzkoarren kultura politikoa 2017' txostena aurkeztu du Lasarte-Orian, Manuel Lekuona kultur etxean. Herriko hautetsiez gainera, ingurukoak ere hurbildu dira saiora, aditu eta beste hainbat eragilerekin batera. Lanaren balorazioa egin dute gero

Adrian Garcia

Hausnarketarako eta elkarrizketarako saioa izan da. Gipuzkoako Batzar Nagusiak 2016an enkargatu zuen lurralde historikoko kultura politikoa aztertze txostena. Hori amaituta, emaitzen berri ematen ari da aldundia orain. Lau hitzaldi egitekoak dira horretarako, "bailaretara eta herrietara prozesua eramateko", Markel Olano ahaldun nagusiaren hitzetan. Lehen hitzaldia Lasarte-Orian egin dute.

Diputatu nagusiaz gainera, Lasarte-Oriako, Urnietako eta Usurbilgo alkate eta zinegotziak izan dira kultur etxean. Baita Maribel Vaquero ere, aldundiko Bizikidetzeta eta Giza Eskubideetako zuzendaria. Horrez gainera, hainbat aditu ere gonbidatu dituzte. Hain zuzen, saioaren helburua txosten horien emaitzak aztertu eta baloratzea izan da.

Aldez aurretik nabaria zena baieztatu du txostenak: gipuzkoarrek politikarekiko duten atxikimendu falta handia da. Halere, interesa agertzen dute, gehienek pentsatzen baitute bizimoduan eragiten diela.

1.500 inkesta inguru egin dituzte; %85ek uste dute hobetu egin behar dela gizek hartu eta Foru Aldundiaren hartu-eman. "Erakundeek eta herritarren arteko harremana estutu behar da", esan du Olanok. Bizikidetzarako giltzarria da hori, haren esanetan: "Urte luzeetan biolentziak mugatu du ekimen soziala eta politikoa, gure herrietan ez zegoen debate politikoa normalizaturik indarkeriak, beldurrak eta inposizioak elkarrizketa normalizatu zapuztu duelako".

Aztiker Soziologia Ikergetan egin du ikerketa, eta Asier Etxeniketik azaldu ditu emaitzak. 2009an gazteekin egin zuten



Gipuzkoako kultura politikoa 2017 txostena aurkeztu dute Lasarte-Orian. TXINTXARRI

antzeko lan bat izan dute oinarri, alderaketak egiteko.

Konfiantza soziala

Bada, azken urteetan Mendebaldeko gizarteetako joera errepikatu da Gipuzkoan: individualismoa. Halere, badaude datu baikorrak, kapital sozialari dagokionean: "Konfiantza dugu inguru sozialarekiko. %53k uste dute pertsona gehienengan konfiantza izan daitekeela. Europa iparraldeko datuen antzekoa da", azaldu du Etxeniketik. Esaterako, Suedia, Finlandian eta Norvegian %60-65ekoa da konfiantza soziala. Frantzia eta Espainian, ordea, %20-25 ingurukoa. Horren erakusgarri dira elkarteak. Gipuzkoarren erdiak baino gehiago dira elkarrekin bateko kide, eta ia %40k boluntario lana egiten dute.

Beste datu interesgarriak ere utzi ditu txostenak: politikagintzarekiko ikuspegi negatiboa dute gehienek. Hala ere, Etxenikeren ustez ez da "gutziz txarra" datu hori. "Sentimendu negatiboa uzten du, baina bederatzi urtean indiferentzia gutxitu egin da. Badago nondik tira".

Oro har, herritarrek demokrazian sakontzea eskatzen dute, baina desberdindu egiten dute EA Eren eta Espainiaren artean. Autonomia erkidegoarekiko poztasun maila %60koa da. Espainiarekikoa, aldiz, %20koa.

Bestetik, erabakitze eskubidearen inguruan zalantzarik ez dago Gipuzkoan, gehiengo zabala (%75) baitago alde. Haatik, erdiak baino zertxobait gutxiagok (%48) egingo lukete Euskal Estatuaren aldeko hautua.

Datuak aurkeztuta, taldeetan banatu eta eztabaidari ekin diote bertaratutakoek. Balorazioak eta proposamenak egin dituzte ondoren. Alderdi ezberdinetako hautetsiek, adituek eta eragile sozial eta ekonomikoek jardun dute demokraziaren inguruan. Ez dira beti ados jarri, ertz asko ezkututzen baititu kultura demokratikoa kontzeptuak; ikuspegiaren arabera aldarra izan daiteke. Herritar batek eginiko hausnarketa da: "Jendea erakarri nahi duzue politikara zilegitasun gehiago izan dezazuen. Nahi duzuen egiten duzue beti".



Lasarte-Oriako Hitzartu taldeko kideak. TXINTXARRI

Iritzi "kontrajarriak" erakartzea, hurrengo hitzordurako erronka

Landaberri Ikastolan egindako Gune Irekiaren balorazioa egin du Lasarte-Oriako Hitzartu taldeak

Maddi Noriega

Hondakinen kudeaketa hizpide hartuta, Gune Irekia antolatzen zuten Hitzartuk, maiatzaren 5ean, Landaberri Ikastolan. Zalantzak zituzten antolatzaileek jendeak gonbiteari erantzun ote zion, baina "gustura" daude parte hartzearekin. "Pentsatu genuen, agian, jendea erreparoa eman zekiola gaiaren inguruko iritzia elkarbanatzea, baina oso motibatuta etorri ziren, ikusten da jendeak beharra duela gaiaz jarduteko", azaldu du Joxe Mari Izeta GuraSOseko lehendakariak.

Dena den, ez dute lortu iritzi kontrajarriak dituzten herritarrak erakartzea. Hondakinen kudeaketaren gaian jendea "oso posizionatuta" dagoela uste du Izetak, eta Landaberrin egin izanak ere eragina izan duela horretan. Iritzi guztietako jendea biltzea dute hurrengo hitzordurako erronka. Belaunaldi arteko

hutsuneak ere antzeman dituzte, eta horri ere aurre hartu nahi diote beste baterako.

Planteamendua egokia

Gune Irekia esparru diafano batean egin izana "positiboa" da Lasarte-Oriako Hitzarturen zatitza. Zenbait gai proposatu eta taldeetan banatu ziren parte hartzaileak, eta horrek, "oso zirkulazio polita" eragin zuen. Interesatzen zitzaizkien gaiaren arabera mugitzen ziren talde batetik bestera.

Haur eta gaztetxoekin joandako gurasoentzat ere "erosoa" izan zen parte hartzea.

Hurrengo hitzorduetarako hobetu beharreko puntuei heldu eta horiek hobetzen saiatuko da taldea, baina guztiaren gainetik, "balorazio positiboarekin" amaitu dute Gune Irekia. Talde trinko bat badago eta lanean jarraituko dutela jakinarazi dute.

Udalak bost kooperazio proiektu lagunduko ditu

Lasarte-Oriako Udalak 2018ko kooperaziorako laguntzak banatu ditu. Guztira 63.287 euro dira, eta Euskal Funtsak kudeatuko ditu.

Bost proiektu hautatu dira, eta bakoitzak 12.657 euroko laguntza izango du. Proiektuak Nikaragua, Guatemala, El Salvador, Kuba eta saharar kanpamenduetan gauzatuko

dira. Izaera ezberdineko proiektuak dira gainera, edateko uraren hornidura eta saneamendua, indarkeriaren aurkako programa, gizarte-arretarako programa edo ur horniketarako kamio zisternen mantenua eta berriztatzea.

Euskal Funtsak esperientzia handia du garapenerako kooperazioan, eta bera arduratuko da proiektu horien jarraipen eta kontrola egiteaz. Erakundeak diruaren justifikazio egokiak aurkeztu beharko dizkio udalari.



Jon Antxordoki, Bingen Zupiria, Markel Olano, Elena Laka eta Jesus Zaballos, topaketaren hasieran. TXINTXARRI

Hamargarren urtez, Udaltop Lasarte-Orian

Euskal Herriko udaletako Euskara Zerbitzuen arteko topaketak Manuel Lekuonako areto nagusia bete du ostegun eta ostiralean. Inoizko harrera handiena izan du euskarako topaketak, 270 pertsona inguru bildu ditu-eta bi egunetan herrian

Txintxarri

Idea "xume" batetik hasi zen proiektuak hamar urteko ibilbidea bete du aurten. Ostegun goizean ekin diote aurtengo Udaltop Udaletako Euskara Zerbitzuetako topaketari, eta gaur eguerdira bitarte 270 pertsona bildu ditu Lasarte-Orian. *Euskaraldia puntuz puntu. Aurtengo puntuari erantzunak eta datorrenari galderak* izenburua eman diote aurten. Goizeko 09:00etan eman diote hasiera, eta erakundeetako ordezkariak izan dira oholtza gainean hitza hartzen lehenak.

Jesus Zaballosek ireki du jardunaldia, eta "harro" agertu da kultur etxeko aretoan hainbeste jende ikusteaz: "Pozik nago, uste dudalako denon artean abiatu dugun ekimen hau ona dela". Zaballosek ekimena egoki ikusten du euskararentzat, alor askotan. Batetik, beti euskaraz hitz egiteko ohitura duten milaka euskaldunentzat. Bestetik, nahiz eta euskaraz egiteko ohiturarik ez izan, euskaraz zer edo zer dakien

eta gehiago egin dadin parte izan nahi dutenentzat. Baita oraindik euskara jakin ez, baina noizbait ulertzera iritsiko diren beste euskal herritarrentzat ere.

Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Batzordeko lehendakari Jon Antxordokik hartu du hitza gero. "Oso harro" agertu da hasierako ideia "xumea" proiektu bihurtu delako, eta dagoeneko hamar urteko ibilbidea osatu duelako. Nabarmendu du urte horietako lana ez dela erraza izan, baina elkarlanean sinesten dute, eta horrela egin dute hamar urtez.

Euskaltzaleen Topagunea

Euskaraldiarekin bete-betea Euskaltzaleen Topagunea, eta egoeraren erradiografia egin du Elena Laka lehendakariak. "Lurralde bakoitzaren testuingurua kontuan hartuta, euskararen lurralde guztietara zabaltzen ari da Euskaraldia". Egitasmoak "harrera ona" duela gogorarazi du, eta, gainera, euskaltzaleen

arte "ilusioa eta gogoa" sortu duela.

Orain gizarte osora zabaltzeko erronka dute, eta guztien artean lortuko dutela ziur da.

Ahaldun Nagusi Markel Olanok eman dio amaiera goizeko lehen ekitaldiari, eta Lasarte-Oria ekarri du gogora: "Gipuzkoako herri askotan ernatzen hasi zen mugimenduak, Lasarte-Orian hartu zuen indar eta izaera berezia".

Erakundeen ostean, Galesko testigantzen berri izan dute ikus-entzuleek. Colin H. Williams Cardiff eta Cambridge Unibertsitateko ohorezko irakasleak Galesen gizarte aktibazioerako eta hizkuntza ohituren aldaketarako bideen berri eman du.

Bazkalostean, udaleko Euskara Batzordeko teknikari Aitor Unanuek *Armairutik irten gineneko: testigantzetatik aurtengo praktiketara?* hitzaldia eskaini du. Gaur jarraituko du topaketak.



NEURE KABUZ

MAIDER GALARDI

Jarrai dezala jokoak

"Lasarten kuadrila gutxi dute aukera esateko badutela lagun bat futboleko lehen mailan jokatzen". Zenbat aldiz errepikatu ote dugun hori barre artean, poteoan. Ondoren hasten gara asteburuko plana egiten, eta oroitzen gara jokalariei profesionala izatearen ordainaz: "Ni ez noa kontzertura. Partida dut Badajozen". Eta hurrengo astean solasaldi bera, eta pareko erantzuna: "Nik ezin dut. Gauean lana dut tabernan".

Orain bi ostegun egin genuen joan den asteburuko plana, bagenekien Iraia ez zela gurekin izango, baina desberdina zen oraingoan. Zer eta Iraia Iparragirre gure laguna, herrikidea, Anoetako futbol zelaian jokatzen, Athleticen aurka. Kuadrilla bazkaria aurrea, pankarta tailerra ostean eta Donostiara. Halako zirrara genuen, ezen presaka sartu ginen futbol zelaian. Pankarta zabaldu eta segurtasunekoak: "Zer jartzen du hor?". Eta guk, harro-harro: "Behingoz Anoeta emakumez beteta".

Eta hala zen. Esango nuke zelaian ez ezik, harmailtan ere bazegoela giro bat, entzuten zirela andreen ahotsak inoiz baino ozenago. Inoiz baino neskato gehiago zegoela partidari begira, adi-adi. Eta konturatzerako pasa ziren 90 minutuak, eta a ze nolako euforia, nahiz eta Athleticek 1-4, irabazi. 21.500 izan ginen azkenean. Umeren batek esango zuen handitan Iraia moduko futbolaria izan nahi zuela.

Joan da astebete, eta apaldu da euforia. Bihar Athleticen aurka jokatzen du berriro Errealak. Horra kontraesanak. Aparretatik jaitzita, inor joango al da Lezamara? Anoetan elkartutako 21.500 lagunok gogoratuko al gara astelehenean Iraiak lanera joan beharko duela? Gogoratuko al gara aparteko emakume hauen lan baldintza eskasez? Garaipena izan zen Anoetakoa, baina badago zer hobetu. Jarrai dezala jokoak.

Mende laurdena irudien bidez

Aterpea merkatarien elkarteak 25 urtez jardun da Lasarte-Oriako herri komertzioaren alde lanean.

Urte horietan guztietan egindako ibilbidea gogora ekarri dute argazkiekin osatutako erakusketa batean. Antonio Mercero aretoan jarri dute erakusleia, eta bihar goizera bitartean izango dute herritarrek hori ikustera joateko aukera.



TXINTXARRI



Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz

publizitatea@ttakun.eus
943 37 14 48 (106) • 646 82 44 66

Bakardadearen aurkako tresna: adiskidetasuna

Adinkide gobernuz kanpoko erakundeak 65 urtez gorakoak laguntzen ditu, boluntario lanaren bidez konpainia eta adiskidetasuna eskaintzen. Lasarte-Orian laguntzaile eta erabiltzaileen sarea eratu nahi du. "Esperientzia oso aberasgarria da bi aldeentzako"

Adrian Garcia

Adiskidetasuna eta maitasuna konpartitzea. Ez dirudi konplikatu hasiera batean, baina askok dute horren falta. Batez ere 65 urtez gorakoek. Hain zuzen, hutsune hori betetzeko egiten du lan Adinkide gobernuz kanpoko erakundeak. Donostian du egoitza elkarteak, baina orain Lasarte-Oriara zabaldu nahi du laguntzaileen sarea. Horretarako, ordea, boluntarioak behar ditu. "Kontua da hitz egitea eta konpainia egitea. Lagun arteko harremana sortzea boluntarioaren eta pertsonaren artean. Ez dugu etxeko lanik edo beste lan administratiborik egiten", azaldu du Leire Garciak, fundazioko arduradunak.

Madriren sortu zuten Pertsona Edadetuaren Lagunen Fundazioa, 2003. urtean. Gipuzkoako ordezkariak orain gutxiakoa da. "Haziak ereiten hasi gara orain", dio Garciak.

Lasarte-Orian Danok Kideren egoitzan ezarri dira, Blas de Lezo kalean. Oraingoz bi pertsona dituzte programan. "Hastapenetan gaude, gure lana ezagutarazteko prozesuan. Kosta egiten da hasierako lan hau". Orain hasiko dira jasotzen eskaera gehiago, eta horregatik nahi dute osatu boluntario sarea herrian.

Adinkiden lan egiten duten askok behin eta berriz diote: "Eman bai, baina jaso ere asko egin dut". Izan ere, lan eskerga egiten dute boluntarioek, bakardadeko une horiek estaltzen. Baina esperientzia aberasgarria dute. "Zaharrek duten indarragatik eta bizi izan duten guztiagatik asko ikasten dute. Edadetuak deitzen diegu, baina gazteak dira asko espertizuz".

Maite Balantzategik erabiltzen du Adinkide Lasarte-Orian. Astean behin elkartzeko da Begoñarekin, fundazioko laguntzailearekin. "Familia



Adinkideko erabiltzaile eta boluntarioak, Danok Kideren egoitzan. JAVIER ZATARAIN

ETXEETAN LAGUNTZA ESKAINTZEAZ GAIN, BESTE HAINBAT EKITALDI ERE ANTOLATZEN DITUZTE

daukat, ez nago abandonatuta. Baina medikuek gomendatu didate jendearekin elkartzeko".

"Ahizpa izango balitz bezala"

Adinkidek beste hainbat ekintza antolatzen ditu ere. Horrela, tarteka programako erabiltzaile elkartzeko dira, sozializatzeko. "Boluntarietaz gain, saiatzen gara beste pertsonekin ere harremanak egin ditzaten, errutinatik atera eta arratsalde polit bat igarotzeko", azaldu du Garciak.

"Begoñarekin oso ondo moldatzen naiz. Ni bezalakoak da: alai. Txarra egiten duenean etxean geratzen gara kartetan jolasten, edo jubilatuetara joaten gara", dio Balantzategik. Denetarik hitz egiten dute. "Denbora gutxi daramat berarekin, baina nire ahizpa izango balitz bezala sentitzen dut".

Hala, pozik egoteak eragin handia du osasunean.

"Laguntzailea dutenean askotan gutxiago joaten dira medikura. Zergatik? Animatua daudelako, ilusioa dutelako eta hitz egiten dutelako", dio Garciak. Distratuta egotean, atsekabeak eta minak bigarren maila batean geratu ohi dira.

Bakartasuna, egungo arazoa

Izan ere, bakartasuna arazo larria da Mendebaldeko gizarteetan. Bizimodu presatiak eta joera demografikoak sozializatzeko modurik gabe utziko ditu asko, bakarrik. "Adituek aurreikusitako XXI. mendeko arazoa izango dela. Azkarregi bizi gara, eta senitartekoak zaintzeko astirik ez dugu".

Gizarte Zerbitzuetatik jartzen dira askotan harremanetan Adinkiderekin, laguntza eskatzeko. Gero bisita bat egiten diete zaharrei etxean, haiei buruz jakiteko. Era berean, boluntarioen profila aztertu ondoren erabakitzen dute zeinek elkartzeko dituzten, ahalik eta ondoen bat egin dezaten. "Esperientzia polita eta aberasgarria da, bai boluntarioentzat zein erabiltzaileentzat".



TXINTXARRI

Presoei "elkartasuna eta babesa"

Buruntzaldeko Sare hasi da herritarrak esnatzen. Eskualdeko ia 30 euskal preso daude barrote artean. Horietatik lau dira Lasarte-Oriakoak eta Euskal Herritik urrun daude guztiak. Ostiralean errezitaldi kulturala egin zuten Lasarte-Orian, besteak beste, haien egoeraren berri eman, eta "elkartasuna, gertutasuna eta babesa" adierazteko. Datorren igandean, hilak 20, beste errezitaldi bat antolatu dute, Santa Barbaran, 12:00etan.

Rolak aldatuz, porlan artean

Arkitekturako ikasleak, EAGI ikastetxeko ikasleekin batera, *passivhaus* txiki bat eraiki dute. Donostiako ikasleek eraikinen diseinuak egin dituzte, eta aurkeztutako lan horien artean bat aukeratu eta eraikiko dute. Rolak erabat aldatu dituzte, ordea, oraingoan. Zementu eta adreilu lanetan aritu dira etorkizuneko arkitektoak. Eraikuntzako ikasleek, berriz, horiek egin beharreko lanak gidatu dituzte. Giro ederrean ikasi dute adreiluak jartzen, baita pladurrekin lan egiten ere.



TXINTXARRI



TXINTXARRI

Gizarte-ekonomiaz hausnartzen

Gizarte-ekonomiaz luze eta zabal hausnartu zuten hainbat lasarteoriarrek joan den larunbatean, Elkarbizik eta BaMP taldeak elkarrekin antolatutako ikastaroan. *Bestelako ekonomia elkarbizitza eredu berrirako* zuen izena ikastaroak. Gizarte-ekonomian aski ezagunak diren asmo eta esperientziak partekatu zituzten. Partaideek arretaz entzun zituzten hizlarien gogoetak, eta bukatu aurretik euren galdera eta zalantzak partekatu zituzten.

Eskualdeko produktuak sustatzeko, 'Beterri Km0'

Bertako nekazaritza ekoizpena zirkuitu laburren bidez merkaturatzeko 'Beterri Km0' egitasmoa aurkeztu dute Hernanin. Eskualdeko ekoizleak elkarrekin arituko dira lanean, eta merkatariekin, ostalariekin eta administrazio publikoekin batera sare bat osatuko dute

Txintxarri

Bertan ekoizti, bertan saldu, bertan erosi eta bertan kontsumitu. Helburu horri erantzuteko jarri dute martxan *Beterri Km0* egitasmoa Beterri-Buruntzako udalek. Eskualdeko zenbait ekoizleak egiten duten lana ikusgarri egin eta sustatzeko asmoz, hiru urteko ibilbidea du egitasmoak, eta dagoeneko, eskualdeko bederatzi ekoizle daude inplikaturik. Produktu ezberdinak ekoizten dituzte horiek guztiak: barazkiak, frutak, esnea, gazta, arrautzak, oilaskoak, marmeladak eta kontserbak, besteak beste. Datozen hilabeteetan horien jardunaz informatzeko katalogo zabala osatuko dute.

Beterri-Buruntza eskualdeko udalentsako "balio berezia" du proiektuak, izan ere, lehen sektorea "erdigunera" ekartzea lortu da. Tokiko garapenak behar dituen elementu guztiak barne hartzen dituela azaldu du Jon Zulueta Beterri-Buruntza Udalak-eko lehendakariak. "Lurra, jasagarritasuna, tokikoa, ekonomia eta lanpostuak sortzea dakartza egitasmoak".

Eskualdeko jantoki publiko guztietan ingurumen klausulak



Beterri Km0 proiektuaren aurkezpen ekitaldia. BETERRI KM0

ezarri nahi dituzte. Horrela, tokiko administrazioek konpromisoa hartu dute bertako ekoizpena kontsumitu, erabilgarriak diren lur publikoak nekazaritzara bideratu, eta sektorea sustatzeko beharrezkoak diren baliabideak eskaintzeko.

Aurrera begirako erronka

Nekazari gehiago bildu nahi ditu *Beterri Km0*-k. Lehen sektoreko jardun horretarako gehiago erakarri nahi dute. Hori errazteko, Behemendi landa garapen elkarteak lagunduta, lur pribatu eta publikoak eskuratu nahi dituzte.

Deia luzatu dute oraindik ekoizle sarera batu ez diren nekazari, merkataria eta hostalari guztiei, bertan izena eman dezaten.

Itsasgarriak

Beterri Km0-ren itsasgarriak jarriko dituzte eskualdeko zenbait jantoki publiko, denda edota tabernatan. Horien bidez, bertan tokiko produktuak kontsumitu ahalko dituztela jakingo dute bezeroek.

Informazio gehiago eskuratu nahi duenak www.beterrikm0.eus webgunean bisitatu dezake, baita ekoizleen inguruko datuak jakiteko ere.



TXINTXARRI

Harkaitz Canorekin azken saioa

Irakurle Txokoak ikasturteko azken saioa egin du astearte arratsaldean. Ohi bezala, 18:30ean eman diote hasiera saioari, eta ordu erdi beranduago etorri da idazle gonbidatua. Harkaitz Cano Donostiako idazlea izan da talde lasarteriatarrekin.

Eleberri baten sorkuntza prozesuaz aritu dira Canorekin; sortzeko unean dituen zailtasuna eta motibazioak elkarbanatu ditu taldearekin, besteak beste.



TXINTXARRI

250 sinadura linearen aurka

Aire Garbiaren sinadura bilketaren emaitzak eman dituzte; 250 pertsonak bat egin dute ekimenarekin, udalari eskatzeko goi tentsioko lineari baimenik eman ez dezan. "Goi tentsioko linea erraustegia martxan jartzeko pieza garrantzitsua da, eta, horregatik besterik ez balitz, Aire Garbia kontra egongo litzateke", dio elkarte ekologistak. "Lineak kalte handia egingo luke ere baso eremuan; udalerriaren ezarriko diren zazpi dorreetatik bost baso-eremu babestuan ezarriko dira, eta gainerako biak, berriz, nekazari-eremu babestuan".




BIOTERRA
2018

GONBIDAPENA

Sarreraren prezioa gonbidapen gabe: 3€ (12 urte arte doan)

Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuaren azoka

1 · 2 · 3 Ekaina
FICOBA, Irun.











#Bioterra2018

Ficobara, zafoz trenean! euskotren (Irun-Ficoba geltokia)

DOHAINIK

bioterra.ficoba.org

Gonbidapen hau moztu eta azokaren sarreraren aurkeztu

 energia berriztagarriak	 osasuna	 habitat osasuntsua
 ideia berdeak	 textil ekologikoa	 ekoturismoa
 nekazaritza ekologikoa	 zenituzdun kontsumoa	 elikadura osasuntsua
 kosmetika ekologikoa	 terapia naturalak	 BIOTERRA

Keinu, puntu eta emozioak

Antzerkia eta bertsoak uztartu ditu Udaberriko Bertso Saioak



Antzele gazteenek ere erakutsi zuten euren trebezia kultur etxeko oholta gainean. TXINTXARRI



Maitasunari buruzko esketxa izan zen larunbateko emanaldiko lehenengoa. TXINTXARRI



Maialen Lujanbio, Andoni Egaña eta Ane Labaka aritu ziren bertsoan, larunbateko saioan. TXINTXARRI



Beste behin, bikain aritu zen Intza Alkain. Ikus-entzuleek gogotik egin zuten barre. TXINTXARRI



Bukaera aldera, oholzatik jaitsi eta publiko artean ibili ziren bertsolariak, koplatan. TXINTXARRI



Konturutzerako, aulkirik gabe geratu ziren bertsolariak. TXINTXARRI



Kartzela ariketarako erabili zuten antzezlaneko une bat. TXINTXARRI



Bertsolariek bakarrik ez, antzezleek ere primeran pasa zuten Udaberriko Bertso Saioan. TXINTXARRI

Beste urte batez, herritarrek ez dute hutsik egin eta kultur etxea bete dute, Udaberriko Bertso Saioaz gozatzeko. Ane Labaka, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbiok egin dute kantuan. Aurten, antzerkiarekin uztartu dute bertsolaritza: Kukuka Antzerki eta Dantza eskolako hainbat ikaslek ere hartu dute parte, ekitaldi fresko eta originala sortuz.

Hiru bertsolariak aritu ziren bertsotan. Uxue Loinazek egin zituen gai-jartzaile lanak, baina baita emanaldian zehar parte hartu zuten antzezleek ere. Gazte zein heldu, euren onena eman zuten oholtza gainean, eta orotariko gaiak proposatu zizkien bertsolariei. Maitasun eredu tradizionalari buruz abestu zuten Labakak eta Egañak, bi kupidok izango balira bezala: *iraungituta ote dago maitasun eredu hori?* galderari erantzun behar izan zioten. Beste esketx batean, fabrika bateko langileak eta nagusia irudikatu zituzten antzezleek. Esketxean erabilitako hainbat hitz sartu behar izan zituzten euren bertsoetan: *lana, zama* eta *banana*, besteak beste.


Antzerkiaren bitartez gaia jartzearen eta bertsolariek abestearen eskema behin baino gehiagotan errepikatu zen, baina bestelako ikuskizunez ere gozatu zuten ikusleek. Esate baterako, Intza Alkain zein Bea Egizabalen bakarriketez, eta baita Ane Huizi, Mailu Arruti eta Miren Egizabalek osatutako hirukoak eskainitako esketx dibertigarriaz. Hiru amona izango balira bezala, eszenatokira sartu, eta bat-batean, bertsolariak alxata zirela, euren eserlekuak hartu zituzten, haiek batere gabe utziz. Gaueko irudi kuriosoenetako bat izan zen hori. Keinuz keinu eta puntuz puntu, oso azkar pasa ziren saioko segundo, minutu eta orduak.



Saioaren amaieran parte hartu zuten pertsona guztiak oholtza gainean elkartu ziren. TXINTXARRI



Bea Egizabalen ateraldiek umore ukitua eman zioten Udaberriko Bertso Saioari. TXINTXARRI



Zatoz eta izan puntu!



Aurtengoan Euskal Herrian aurrera eramango den Euskaraldia ez da hutsetik abiatzen. Azken bi urteotan hainbat herritan martxan jarri diren dinamiketan du abiapuntua; hein handi batean, gure herrian *Irten armairutik* lelopean aurrera emandako esperientzia indartsuaren segida dela esan genezake. 2018an Euskal Herri osora zabalduko den egitasmo honek, azken boladan hasi dugun bidea jarraitzea du xede. Horretarako, Euskal Herriko erakunde publiko eta Euskararen Gizarte Eragile guztiek bat egin dute, elkarrekin Euskaraldia antolatzeko.

2016ean Euskararen 9. maratoiaren testuinguruan bitzako esperientzia oso positibotzat baloratua izan zen, bai partaideen bizipenetan eta hizkuntza ohituren aldaketan izandako eraginagatik, baita

euskaltzaleen aktibazioak ekarritako herri dinamikengatik ere.

Gauzak horrela, herritarrak aktibatu eta elkarlan dinamika berriak sortzeko abiatutako lan ildoak hizkuntzaren erabileran proposamen praktikoak egiteko norabidea hartu du. Oraingo honetan, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra egingo da lehen Euskaraldia, 11 egun euskaraz lelopean. Euskaraz hitz egin eta ulertzen duten herritarren arteko harremanetan hizkuntza ohiturak aldatzea du helburu, baita era guztietako entitateak euskarazko hizkuntza praktikak babesteko neurriak hartzea bultzatzea ere.

11 egun horietan, 16 urtetik gorako herritarrak Ahobizi eta Belarriprest bihurtu nahi ditugu. Lasarte-Orian ezagunak dira horiek. Ahobizi ulertzen duten guztiei euskaraz hitz egiten dieten lagunak dira (baita ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egiten dietenak ere). Belarriprest, berriz, gutxienez euskara ulertzen duten kideak dira, gainontzekoei euskaraz

aritzeko gonbidapena luzatzen dietenak.

Ekimena Euskal Herri osoan egingo den arren, tokian tokiko euskaltzaleak izango gara herri bakoitzeko dinamiken sustatzaileak, eta tokiko inguru soziolinguistikora zein errealitatera moldatuko dugunak.

Antolaketan, beraz, auzo, herri zein eskualde askotako euskaltzale taldeak arituko gara, eta baita elkarte, enpresa zein erakundeak ere.

Lasarte-Oriak ere, nola ez, izena eman du gure hizkuntza ohiturei astindu berri bat emateko esperientzia berri honetan.

Izena emateaz gain, ordea, maiatzaren 25ean, 19:30ean, Okendo plazan, *Lasarte-Oriatik Euskal Herrira. Izan puntu!* ekimenaren aurkezpena egingo dugu eta bertara etor zaitezten gonbita egin nahi diegu eragile zein herritar guztiei.

Maiatzak 25

19:30ean - Okendo plaza

- Euskararen Maratoiak gatzoz eta Euskaraldira goaz: hamaikakoaren aurkezpena.
- Euskal Herriko hamaikako kide diren pertsonaia ezagunen bisita.
- 'Izan puntu!' abestiaren aurkezpena.
- Armairuari omenaldia.
- Ekimenean parte hartuko duten herriko eragileen aurkezpena.
- Aurten Ahobizi eta Belarriprest izateko izena ematearen hasiera.





IZAN PUNTU!



11 EGUN EUSKARAZ

EUSKARALDIA

Azaroaren 23tik
abenduaren 3ra



**LASARTE-ORIATIK
EUSKAL HERRIRA!!**

"Historia egin dugu, eta parte sentitzen naiz"

IRAIA IPARRAGIRRE REALEKO FUTBOLARIA

Denboraldi hasierazaila izan du lasarteoritarak, baina ongi borrokatuta lortu du tokia egitea hamaikakoan. Iganeko partidaz dudu bere halakoan ahaztuko: "Izugarria izanda"

Adrian Garcia

Urrats asko daude egiteko, baina tarteka albiste pozgarriak izaten dira; joan den igandean Anoeta bete zen, Realaren eta Athleticen arteko derbian. Lehen aldiz jokatu zuten emakumeek estadio horretan, askok mugarriztat jotako partidari. Denboraldia erdipurdi hasi arren, bigarren itzulian Iraia Iparragarri (Lasarte-Oria, 1995) ezinbestekoa izan da talde txuri-urdinean. 90 minutuak jokatu zituen partida historiko horretan.

Nolakoa da Anoetan jokatzeko 21.500 zaleren aurrean?

Izugarria da. Aspaldi ez nituen horrelako sentsazioak eduki, Realean debutatu nuenetik. Horrenbeste jende emakumei animatzea historikoa da.

Horrenbeste, bi partida izan dira zuretako bereziak, debutarena eta igandekoa.

Esaten da batzuetan tximeletak izaten direla sabelean. Sentsazio hori eduki nuen igandean.

Alderaketak ez dira beti egokiak izaten, baina Xabi Prietoren agurrean baino jende gehiago erakarri zuten.



Iraia Iparragirre, Okendon. TXINTXARRI

Bai, entzun dut denboraldian ez dela horrenbeste bete. Historiaren parte izan da. Jendea etorri da emakumeak animatzera Anoetara, gizonen futbol zelai batera.

Mugarri bat izan al daiteke aurrerantzean Anoeta soilik mutilen zelaia ez izateko?

Pauso txikiak ematen ari gara, eta hau oso handia izan da. Ez dut esan nahi honekin Anoetan

jokatuko ditugunik partida guztiak. Baina espero dut norgehiagoka garrantzitsuak, derbiak eta partida bereziak, hor jokatzea.

Emaitza bakarrik falta izan zen. 1-4 galdu zenuen.

Zer esan dezaket... Athleticen oso talde ona du, eta ez du bat bera ere barkatzen. Oso ondo ari ginen aurre egiten, baina kasualitatez iritsi zen gure atean

sartu genuen gola. Ez genuen merezi horrenbeste gol jasotzea. **Espainiako Kopan berriro izango zarete aurrez aurre larunbatean.**

Jakin nuenean haien kontra jokatuko genuela, errebantxa gogo izugarria sartu zitzaidan. **Iganeko partidara bueltatuta, diozu pauso txikiak ematen ari zaretela. Baina oraindik badago bidea egiteko. Adibidez, Realaren ereserkiak ez zaituztete aipatzen.**

Klub guztietan gertatzen da gauza bera. Azken finean, mutilen lehen taldeak ematen dio guztia, bai ekonomikoki, baita beste gauza askotan ere. Mutilen ligak diru asko mugitzen du. Bere garaian ereserkiko kanta egin zenean haiengan bakarrik pentsatu zuten. Badago beste bat mutilak eta neskak hartzen dituen kontuan: Porrotxen *Itsaso txuri-urdina*. Nire ustez, hemendik gutxira aldatzea posible izango da.

Orain bi urte TXINTXARRI-k eginiko elkarrizketan baikor agertu zinen, pausoak emango zirelakoan. Bete al dira pauso horiek?

Bai, asko gainera. Gaur egun emakumeen ligan askoz ere lehia handiagoa dago. Geroz eta zailagoa da lehenengo mailan egotea. Ni horren parte naiz, eta pribilegiatu bat sentitzen naiz. **Historia horren parte sentitzen zara?** Bai. Eta zer esanik ez joan den igandeko partidaz. Harrobikoa naiz, eta Anoetan jokatu dut. Lehenengo derbia zen niretzako. **Beste herrialde batzuetan profesionala da emakumeen futbola. Nola da hemengo egoera?**

Gu bagara profesionalak. Kontratu profesional bat dugu; Realak izan

zen lehenengotarikoa hori eskaintzen. Baina gauza bat da profesionala izatea, eta beste bat futboletik bizi ahal izatea. Espainiako ligan badaude talde eta jokalaririk batzuk futboletik bizi direnak, baina beste asko ez. Hor ere pixkanaka bagoaz pausoak ematen. Gutxiengo soldata baten alde borrokatzen ari gara... Denboraren poderioz lortuko dugu. **Zure kasuan, nola uztartzen duzu futbola bizimoduarekin?**

Gauza garrantzitsuena bezala jartzen dut futbola. Ordu asko kentzen dizkit; ia egunero entrenatzen dugu, eta gutxi gorabehera arratsalde guztia hartzen dit. Ikasketak eta lana uztartu behar ditut, zeren soldata nahikoa ez dugu; etxetik joan nahiko nuke, baina Realak ematen didanarekin ez zait iristen.

Zazpigarren egin duzue ligan. Zer balorazio egin duzue?

Gauza asko ikasi ditut urte honetan. Beltzetik zurira pasatzen ginen bigarren itzulian. Eta guk lortu dugu, jokalaririk. Entrenatzaile aldaketak izan dezake eragina, txip aldaketa delako. Baina gu gara jokatzeko dugunak. Lehenengo urtean baino postu hobea egin dugu.

Ligako lehenengo zatian ez duzue jokatu.

Beti eduki dut jarrera baikorra. Jokatu ez arren, beti borrokatu dut hamaikakoan postu bat irabazteko. Azkenean Gonzalok [Arconada entrenatzaileak] nigan egin zuen apustua Atletico Madriden aurka, eta geroztik partida guztiak jokatu ditut.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
ESPAINIAKO KOPA
Reala - Athletic
Larunbata. 16:00. Zubietan.
ERREGIONALEN IGOERA FASEA
Ostadar SKT - Touring
Larunbata. 15:30. Michelinen.
ERREGIONAL PREFERENTEA, PROMOZIOA
Ostadar SKT - Aretxabaleta
Larunbata. 17:15. Michelinen.
JUBENIL 1. MAILA, IGOERA FASEA
Lagun Onak - Ostadar SKT
Ostirala. 19:00. Garmendipe, Azpeitian.
KADETE 1. MAILA, IGOERA FASEA
Orioko - Ostadar SKT
Larunbata. 12:30. Mendibeltz, Orion.
ALEBIN ERRENDIMENDUA, FINALA
Vasconia - Ostadar SKT
Igandea. 10:00. Zubietan.

ARETO-FUTBOLA
HERRIKO TXAPELKETA
Insausti Kattagorri - Patricio Cocktail Bar
Larunbata. 09:30. Michelingo kirolgunean.
Izen gabe - Asador Irigoien
Larunbata. 10:30. Michelingo kirolgunean.
Trumoi - Buenetxea taberna
Larunbata. 11:30. Michelingo kirolgunean.
Viña del Mar - Avenida Taberna
Larunbata. 12:30. Michelingo kirolgunean.
3. NAZIONAL MAILA
Lagun Onak - Eguzki Antonio Aroztegia
Igandea. 12:15. Galdakaon.
SASKIBALOA
SENIOR 1. MAILA LIGAKO KANPORAKETA
Antigua Luberrri - Ostadar SKT
Larunbata. 16:00. Gasca kiroldegia, Donostian.
JUNIOR ERRENDIMENDUA LIGAKO FINALERDIAK
Bera Bera - Ostadar SKT
Larunbata. 18:00. Manteo kiroldegia, Donostian.

KADETE ERRENDIMENDUA
Bera Bera - Ostadar SKT
Igandea. 9:30. Manteo kiroldegia, Donostian.
KADETE PARTIZIPAZIOA
Zast 2003 - Ostadar SKT
Igandea. 12:00. Antonianos kiroldegia, Zarautzen.
TXIRRINDULARITZA
KADETEAK
Kadete mailako txirrindulariek Eibarres Trofeoa Ikolan Sari Nagusia proban lehiatuko dute.
Larunbata. 10:30. Eibarren.
BTT
BASABURU BTT
Hainbat herritarrek XI. Basaburuko BTT proban hartuko dute parte.
Igandea. 9:00. Basaburuan.
PILOTA
PROFESIONALA, ESKUZ BINAKA
Jaka eta Merino II - Arteaga II eta Ladis Galarza
Larunbata. 17:00. Labrit, Iruñean.

2. URTEKO ALEBINA
Intza 2 - Gazteleku 3
Larunbata. 16:00. Michelinen.
IGERIKETA
UDABERRI LIGA
Infantil, Junior eta Absolutuak Udaberri Ligako 3. jardunaldian izango dira lehiak.
Larunbata. 16:00. Allurralde kiroldegia, Andoainean.
TRITATLOIA
HONDARRIBIKO TRITATLOIA
Hainbat herritarrek X. Hondarribiako Sprint Triatloian parte hartuko dute.
Larunbata. 17:00. Hondarribian.
ERRUGBIA
OHOREZKO MAILA, KANPORAKETA
Ciencias Sevilla - Hemani CRE
Igandea. 12:00. La Cartuja, Sevilla.
GIMNASTIKA
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
LOKEko gimnastek Gipuzkoako txapelketa lehiatuko dute.
Larunbata. Goiza. Azpeitian.

ATLETISMOA
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
LOKEko alebinek eta infantilek proba konbinatuetakoa Gipuzkoako txapelketan parte hartuko dute.
Larunbata. Eguna osoa. Belodromoa, Donostian.
HERRI LASTERKETAK
URUMEAKO 5 MILIAK
Hainbat herritarrek Urumeako 5 Miliak proban parte hartuko dute.
Igandea. 10:00. Donostian.
MENDI LASTERKETA
GOIZUTRIL
Hainbat herritarrek 10 km. eta 25 km. probetan parte hartuko dute.
Larunbata. 9:00. Goizuetan.
MITXARRO BIRA
Mitxarro Bira lasterketan parte hartuko dute hainbat herritarrek.
Larunbata. 9:30. Araithan.



Gogotik izerditu behar izan zuen Ostadarrek igandean, azken laurdenean batez ere, Oiarso irabazteko. TXINTXARRI

Lauko Finalera sailkatu da Ostadar Saskibaloia

Ligako lau talde onenetako bat da Ostadar SKT. Kategoriako Lauko Finalera sailkatu da, Oiarso atzean utzita. 30 puntuko aldea bikain kudeatu dute urdin-beltzek, eta itzuliko neurketa ere poltsikoratu dute (50-46). Luberri izango dute arerio bihar

Iñigo Gonzalez

Denboraldiko helburu nagusia bete du Ostadar Saskibaloia asteburuan: Emakumezkoen senior probintzia mailako Lauko Final handira sailkatu da. Baina taldea ez da konformatzen: "Egindako lanaren saria da Lauko Finala jokatea; behin bertan gonda, gure onena emango dugu", dio Ander Otaegi entrenatzaileak.

Oiarsoarekin neurtu dituzte indarrak urdin-beltzek, final laurdenetan. Erreterian jokatu zuten joaneko partida, eta 30 puntuko alde ederra (46-76 irabazi zuen Ostadarrek) ekarri Lasarte-Oriara. Itzulikoa pasa den igandean jokatu zuten. Hori ere, zakura: 50-46.

"Hotz ekin genion partidari, gaizki, txisparik gabe; tentsioa falta zitzaigun". Ander Otaegi entrenatzailearen analisia da. Dena den, aurreneko hamar minutuen ostean, goitik zen Ostadar: 10-9. Antzekoa izan zen bigarren laurdeneko dinamika. Indarrak parekatuta. Markagailua

ere bai: 23-22. Hirugarren laurden bukaeran hautsi zuen neurketa Ostadarrek, edo hori zirudien behintzat. 13-0eko partziala sartu, eta ihes egin zuten markagailuan. Dena dela, Oiarso ez zuen amore eman, eta kantxa osoan presioa eginez, puntuz puntu jan egin zuen herritarrek hartutako aldea; minutu bakar baten faltan, 46-46. Urdin-beltzek ez ziren urduritu, ordea, eta hobeto kudeatu zituzten azkeneko baloi-jabetzak. Azkenean, 50-46.

Estiloen arteko talka

Luberri izango du aurkari Ostadarrek bihar larunbateko finalerdian. Otaegik buruz dakizki talde donostiarraren ezaugarriak: "Taldea beterranoa

LUBERRIREN AURKA JOKATUKO DITU FINALERDIAK, BIHAR, 16:00ETAN, GASCA KIROLDEGIAN

da, indartsua, eta altua". Liga erregularrean bi aldiz jokatu dute elkarren aurka. Bi partidak galdu ditu Ostadarrek, baina oso gutxigatik. "Donostian luzapenean galdu genuen". Bien indarrak paretsu daude, baina joko estiloek ez dute zerikusirik: erritmo oso mantsoan aritzen da Luberri; neurketak saskitze gutxikoak izaten dira. Ostadarri, aldiz, korrika egitea gustatzen zaio, erritmo oso bizia jartzea hasieratik. Erakargarria izango da bien arteko talka. Beste finalerdian Bera Bera eta Atletico San Sebastian ariko dira. Irabazleek etzi jokatu dute final handia, 18:00etan.

Junior mailan, ederki

Indartsu dago Ostadarren harrobia. Junior mailan bi ordezkari ditu, Errendimenduan eta Partizipazioan. Lauko Finalerdian lehiatu dute biek, eta finalera sailkatu ez badira ere, denboraldi ikusgarria egin dute urdin-beltzek.



HCRE

Jon Ander Puertas, Errusian

Errusian jokatu den Europako errugbiko zazpiko txapelketan jokatu du Jon Ander Puertas lasarteoriarrak. Hamabi herrialderen arteko lehia izan da, eta seigarren postua eskuratu du Hernani Errugbi Taldeak. Larunbatean jokatu hiru partidetatik bi irabazi zituzten, eta final laurdenetarako sailkatu ziren. Igandean, berriz, Krasnoyarsk (Errusia) aurka galdu zuten lehen partida. Grasshopper izan zuten gero aurkari, eta horiei irabazi ostean, seigarren postuan amaitu dute. Orain asteburuan jarri behar ditu taldeak indar guztiak. Ohorezko mailari eusteko kanporaketa jokatu dute Sevillan, Cienciasen aurka.

Bi domina lortu ditu Aitana Molano gimnasta gazteak

Azpeitiako kiroldegian lehiatu da lasarteoriarra, larunbatean, eta pozik dago lortutako emaitzekin

Txintxarri

Bakarkako lehia lehen urtea du Aitana Molano gazteak, eta pozik dago lortzen ari den emaitzekin. Azpeitian aritu da, eta bi domina kolporatu ditu.

Uztaien ariketan bigarren postua eskuratu du, eta hirugarren postua, berriz, sailkapen orokorrean.

Asteburu honetan, aldiz, Gipuzkoako finala jokatu du Eibaroko Ipuru kiroldegian. Bertan arituko dira Senior A mailako taldeak, kadete mailako bi talde, eta baita Garazi Gomez, Aizpea Arroyo eta Alazne Gonzalez, bakarka. LOKEko gimnastak goizez lehiatuko dira.



TXINTXARRI

Ligari eusteko azken aukera

Trintxerperi irabazita, promozioa jokatu dute Ostadar SKTko erregionalek. Azken hirugarren sailkatu da taldea, eta Aretxabaletaren aurka izango du norgehiagoka erabakigarria. Polemika sortu du federazioak, hasiera batean salbatutaz jo baitute talde hori. Michelinen izango da joaneko lehen partida, larunbatean, baina Aretxabaletan erabakiko da kanporaketa datorren asteburuan.

Haizearen aurkako "borroka psikologikoa"

Trinko Iruñeko Distantzia Erdiko Triatloian izan da. Imanol Arteagak, Asier Gorostegik, Leonardo Juarezek eta Enaitz Ibarburuk proba osatu dute, bizikletako zatian majo sufrituta. Erronka beteta, Donostiako Onditz Triatloian dute orain hurrengo helburua

Adrian Garcia

Distantzia erdiko triatloia proba luzea da, ordu askoko ahalegina. Baina Iruñeko Half Triatloia egin dutenak bereziki bizikletako zatia gogoratuko dute. Eta ez gustura aritu zirelako. Lehenengo 30-40 kilometroak egin ondoren, hiribururantz bira egitean arerio gogorrenarekin topatu ziren aurrez aurre: haizea. Trinko taldeko lau kidek osatu dute lasterketa, Asier Gorostegik, Leonardo Juarezek, Enaitz Ibarburuk eta Imanol Arteagak. Denek bat egin dute. Bizikletako zatiak baldintzatu du proba: "Borroka psikologikoa izan da".

1.000 kirolarik parte hartu dute, baina arazo gehiegirik ez dute izan irteeran. Allotzeko urtegian 1,9 kilometro egin dute igeri, zirkuitu batean. "Taldeen ataraten ginen, orduan ez zegoen arazorik", esan du Juarezek. Buietan bai jaso dituzte kolpe batzuk, baina aparteko zailtasunik ez dute izan aurrera egiteko.

Badu berezitasun bat Iruñeko triatloiak. Bi trantsizioak toki desberdinetan egin dituzte, bizikleta urtegian hartu eta Iruñerako bidea hartu baitute, han lasterka egiteko. "Ondo egon da antolatua, ongi egin dute lan".

Behin bizikleta hartuta hasi da sufrikarioa. "Lehen zatian oso ondo joan naiz. Baina gero nabaritu dut abiadura jaisten joan naizela", azaldu du Ibarburuk. Haizea aurka edukitzea nahikoa ez, eta ibilbidea ere hasi da gogortzen bigarren zatian. 85 kilometroko luzera du bigarren sektoreak.

Haize zakarrak bultzatuta sortu da probaren polemika. Aurrekoaren gorpila hartzea debekatuta egoten da horrelakoetan, baina askok urratu dute araua. "Etsigarria da haizearen aurka sufritzen joatea, araua errespetatzearen,



Gorostegi, Juarez, Ibarburu eta Arteaga, Aritzaleku kanpian. TRINKO

GUSTURA IBILI ARREN, PROBA MASIFIKATUA DAGOELA USTE DUTE; 1.000 PERTSONEK EMAN DUTE IZENA

eta ilaran joandako lau taldetxo batek zu aurreratzea", kexatu da Gorostegi. Epaleek urraketa horiek ikusi dituztenean ezikusiarrena egin dute.

Halere, batzuk bata bestearen ondoan joan beste erremediorik ez dute izan, espazio faltagatik. "Segun eta uretatik noiz atera, jende askorekin elkartu zintezkeen errepidean. Eta denentzako tokia ez zegoen", dio Juarezek.

Gainera, ezbehar txiki bat izan du Arteagak. Gorpila

zulatatu du hamar bat kilometroren faltan. "Oztopo bat gaintu nuen, baina hurrengoan txikitu nuen gorpila. Eta erortzetik gertu egon naiz". Denbora galdu arren konponketan, bost ordutik behera amaitu du proba.

Alde zaharreen korrika

Triatloi proba luzeetan ohikoa izaten da aurreko esfortzuek korrikako saioa baldintzatzea. Kasu honetan, are gehiago. Iruñeara iritsita, hiru bira eman dizkiote zirkuitu bati, alde zaharreen barrena. Polita bezain gogorra da ibilbidea; Santo Domingo aldapa hiru aldiz igo behar izan dute.

Bizikletako sufrikarioa gorabehera, laurek gozatu dute probaz, eta gustura geratu dira egindako denborekin. Beste distantzia erdiko probak eginak dituzte, eta ibilbidea gustatu arren, zalantzi agertu dira berriro izena emango ote duten galdetean. Arteaga: "Azkenean urruti samar dago, eta denbora eskatzen du. Gainera, masifikatuegia dago nire ustez. Edozertarako ilara luzeak itxaron behar dituzu".

Herritarren denborak

- Imanol Arteaga 4:59
- Asier Gorostegi 5:05
- Leonardo Juarez 5:08
- Enaitz Ibarburu 5:40



Beñat Carbayeda Abadiño helmugara iristen. BAZPI

Carbayeda kadetea, garaile V. Javier Elorriaga sarian

Caja Rural taldeko Iñigo Altuna herritarrak ezin izan zuten Bidasoako itzulia amaitu, 23 urtez azpiko proban

Txintxarri

Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolako kadeteak Gaztetxoak Torneo V. Javier Elorriaga Sarian parte hartu zuten Abadiño. Beñat Carbayeda garaile izan zen lehen urteko kadeteen lasterketan.

Taldean, baina lasterketa buruan joan zen ibilbide osoan Carbayeda, Goiuriako mendateko jaitziera arte. Bertan jo zuten kolpea gaztetxo lasarteoriatarrak. Atzean utzi zituen arerioak eta azken kilometroak bakarrik egin zituen.

Ozta-ozta iritsi zen helmugara. Lasterketan zehar jasotako kolpe baten ondorioz, atzeko gorpiloko lokailua aterata zuen eta gorpila galtzar egon baitzen.

Bigarren urteko kadete lasterketan, berriz, Asier Pozo eta Markel Aristegik parte hartu zuten. Buruntzazpiko taldeko

gazteek ez zuten zortetik izan, eta ezin izan ziren lehen postuetan sailkatu.

Asteburu honetan berriro ere lehiari izango dira kadete guztiak. Igandeko Eibarres trofeoa Ikolan Sari Nagusia proban izango da hori.

Bestalde, Iñigo Altuna gazteak Bidasoako itzulian parte hartu zuen, 23 urtez azpiko Caja Rural taldearekin.

Lau egunetako proba gogorra izan da herritarrarentzat. Irun eta Irrisarri land arteko lehen etapan erorikoa izan zuen. Horrek tropeleko eta sailkapeneko lehen postuetatik aldentu zuen. Ondorioz, gainerako etapetan taldeko beste txirrindularientzat lanak egin zituen.

Baina ezin izan zuten itzulia amaitu. Azken etapen, Irungo helmugara iritsi baino lehen bizikletatik jaitsi behar izan zuten.

LOKEko alebinek Gipuzkoako laugarren postua lortu dute

LOKEko atletismo saileko alebinek Gipuzkoako klubaren arteko txapelketa lehiatu zuten maiatzaren 13an, Tolosan.

Gaztetxoek lan ederra egin zuten. Aipatzekoak dira Eneko Matxainek pisuan eta Amane Mesak 60 m. hesiak proban lortutako lehen postuak; altueran, Aritz Rueda eta Nora Capisteguiaren bigarren postuak

edo Markel Martin eta Lur Adanek luzera jauzian eskuratutako 3. postuak. Nesken 4x60 m. erreleboak ere hirugarren denbora onena egin zuten.


Emaitza hauei eta beste batzuei esker, laugarren postuan sailkatu zen LOKE, hirugarren sailkatuarekin puntuak berdinduta, 93.5.

Igande honetan, maiatzaren 20an, LOKEko infantil eta alebinek belodromoan izango dira proba konbinatuetako Gipuzkoako txapelketan.

ZORION AGURRAK




Saritxu
Zorionak txingurri, ondo-ondo pasa zure egunean! 8 muxu potolo!



Leire
Zorionak Leire!! 15 urte bete dituzula oraindik ez dugu sinisten!! Jarraitu irrifartsu!!



Eneko eta Sara
Zorionak bikote, ongi pasa dezazuela zuen 11. eta 7. urtebetetzean, amaren eta aitaren partetik.



Maddi
Zorionak Maddi! Oso zoriontsu egin gaituzu bost urte hauekin! Asko maite zaitugu! Unax, Oier, aita eta ama.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu TXINTXARRI-ren bidez zoriontzeko:

Internet

Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurrak eta bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Asteazkeneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 18	ACHA-ORBEA
Larunbata, 19	LASA
Igandea, 20	LASA
Astelehena, 21	URBISTONDO
Asteartea, 22	GANDARIAS-URIBE
Asteazkena, 23	ORUE
Osteguna, 24	DE MIGUEL

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu:
Urbietea kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehieneko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

OHARRAK

Odol ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean, maiatzaren 28an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, 17:30etik 20:30era.

Anima zaitetze, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

60ean jaiotako enafaria

1960ean jaiotako enafaria antolatu dute maiatzaren 26an, larunbata.

Izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko 615 781 117 zenbakira deitu, Joselu.

Santa Teresa ikastetxearen eskertza

Donostiako Santa Teresa Ikastetxeak 2018ko Azoka Solidarioa aurrera ateratzeko eta antolatzeko lagundu duzuen enpresa, pertsona eta familia guztiei eskerrak eman nahi dizkizue. Gomendatu zaizkigun Proiektu solidarioak

aurrera eramaten lagundu diguzuelako, eskerririk asko guztioi. Datorren urtean ere zuen laguntzaren zain izango gara. Mila esker.

Irakurle txokoko errifaren sariduna

Lasarte-Oriako Irakurle Txokoak urtero legez, errifa egin du. Zenbaki sariduna 348 da. Altxoa Amorotoko nekazal turismoan 5 pertsonentzako egonaldia irabazi du zorteko zenbakiak.

Galizia eta Portugalera bidaiak

Biyak Bat elkarteak bidaiak antolatu du Galizia eta Portugalera iparraldera, maiatzaren 27tik ekainaren 5ra. Elkarteko bazkideek 530 euro ordaindu behar dituzte; bazkideak ez direnek, berriz, 580 euro. Izena ematea elkarteko bulegoan egin behar da astelehenetik ostiralera 10:30etik 12:30era.

SUDOKUA

5	8	9	7			6		1
4	7							3
	3			6				7
3							5	
	5	4		7	6			
	2	8	4	5			7	
7			9					1
				2	5	7	6	
2			6			8		

ESKELAK JARTZEKO: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

- ▶ Hileta egunean eskela Txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean: 80€

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan

Eskelak Txintxarrin 90 euro

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ALOKAIRUAN EMAN

Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailua etxe osoan. Telefonoa: 649 526 766.

Txaleta alokatzen dut Huelvan ekainean, uztailan eta irailean. Punta Umbrietik oso gertu, hondartza parean eta erabat ekipatua dago. 943 376 115.

LANA

ESKAERA

Emakume arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak edota haurrak zaintzeko. Garbiketa lanak ere egiteko prest. 631 761 161.

Gizon arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Garbiketa lanak ere egiteko prest. 631 761 161.

Pertsona edadetuak zaintzeko lan bila nabil. Garbitzeko, asteburuan lan egiteko edo orduka aritzeko prest nago. Telefonoa: 677 768 682.

Eskarmentudun pertsona lan bila dabil. Orduka, aste gutunetan edo asteburuetan, garbiketa lanetarako, edo haurrak eta helduak zaintzeko. Telefonoa: 637 160 734.

Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko prest. Aste barruan edo asteburuetan lan egingo nuke. 628 27 24 16

Adineko pertsonak zaintzeko eskaintzen dut neure burua. Ospitaleetan, etxean, gauez edo externa moduan lan egiteko prest. Profesionaltasun agiria dut, eta 10 urteko eskarmentua. Telefonoa: 671 763 558.

Jostun lanak egingo nituzke. Adineko pertsonak ere zaintzeko prest. Esperientzia handia. 688 62 36 50

Garbiketa lanak edota adineko pertsonen zaintzeko nituzke. Esperientziaduna. 631 702 961.


JAIOTAKOAK

Alba Gonzalo Carrasco. Maiatzaren 13an.
Izar Urrezola Maiz. Maiatzaren 11an.

HILDAKOAK

Enrike Garcia Greño. Maiatzaren 15an.
Domingo "Txomin" Iradi Erauskin. Maiatzaren 14an.
Enrique Barcenilla Mendiola. Maiatzaren 13an.
Antonio Mercero Juldain. Maiatzaren 12an.

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Martxa. Gure Esku dago ekimenak lasarteoriarrak bildu nahi ditu *Eta zuk? Zergatik eta zertarako erabaki nahi duzu?* lelopean. Horretarako martxa bat antolatu du Kotxeretako zubipetik Okendo plazara. Martxaren amaieran ekitaldia egingo da. Honez gain, ekainaren 10eko giza katean izena emateko aukera izango da. Eguraldi txarra eginez gero, Loidi Barren pilotalekuan izango da. Lasarte-Oria, bihar, larunbata, 18:00etatik aurrera



LASARTE-ORIA Udaberri festa. Aterpea Merkatarri elkarteak bere 25. urteurrenetako ekintzekin jarraikiz, Udaberri festa antolatu du. Elkarteko dendetan eskaintzak, haur eta helduentzat tailerrak eta emanaldiak izango dira Lasarte-Orian zehar. Lasarte-Oria, ostirala eta larunbata

OSTIRALA 18

LASARTE-ORIA Udaltop jardunaldiak Udaltop jardunaldiak hamargarrenez egingo dira. Aurtengoan, Euskara zerbitzuetako teknikariek Euskal-raldian eman beharreko pausoei buruz hausnartuko dute. Manuel Lekuona, 9:00etatik 13:00etara.

LASARTE-ORIA Udaberri festa Udaberri festatako bigarren jardunaldian, eskaintzak, hainbat tailer eta emanaldi izango dira: 11:00etatik 13:00etara, *Bidaia/ esperientzia paregabe eta erabat berrien aurkezpena*, Noaua Bidaiak. 17:00etan, Amaia Gonzalez Caballero. Jaizkibel plaza.

17:00etatik 19:00etara, *Apaindu zure litxarrieriak* tailerra, Dulce Tentación denda.

17:00etatik 19:30era, Haur marrazkien lehiaketa. Ola Enmarcacion.

17:00etatik 20:00etara, haur eta helduei zuzendutako puntu tailerra, Olmi mertzeria.

17:30ean, Puzgarriak Urko plazan, Juan XXIII.a plazan, Zumaburu Eliza plazan. Euria egiten badu, Loidi Barren pilotalekuan.

18:00etan, Jalgune. Elizatze plaza
18:00etan, Udal Musika Eskola. Iñigo Loyola kalea.

19:00etan, Semblante Andaluz. Okendo plaza.

19:00etatik 21:00etara, Komando Patxaran taldearen rock-kontzertua. Buenetxea kafetegi-taberna.

19:00etan, Alboka abesbatza. Pablo Mutiozabal kalea.

19:30etik 23:00etara, Udaberriko barbakoa kontzertuarekin girotua. Arkupe taberna.

20:00etan, Zero Sette. Andapa plaza.
20:00etan, Erketz eta Suberri. Elizatze plaza.

Arratsaldean zehar, Dinbi Banda Batukada eta Oraintxe in Deu txaranga kalean.

Egun osoan zehar, *Albiste onen eguna* tailerra. Albiste originalenak saria izango du. Bus Kafetegia.

Egun osoan zehar, ikastetxeetako haurren marrazki erakusketa izango da. Aterpeako denda eta tabernak, egun osoa.

LASARTE-ORIA Aterpea erakusketa Aterpea Merkatarri elkarteak mende laurden honetan egin dituen ekintzen argazki erakusketa ikusgai.

Antonio Mercero Aretoa. Gaur ostirala, 19:00tik 21:00etara. Larunbata, 11:00etatik 13:00etara.

ASTIGARRAGA Museoen eguna Sagardoetxeak Museoen egunarekin bat egingo du familientzako jarduera berezi bat eskainiz: Sagardoetxeako oka jokua. Aurrez erreserba egitea beharrezkoa da: 943 550 575 / info@sagardoarenlurraldea.eus Sagardoetxea, 17:00etan.

URNIETA Borobilean Pirrixtx, Porrotx eta Marimotots pailazozen *Borobilean* emanaldiaz gozatuko dute etxeko txikiak. Sarrera, 7 euro. Egape ikastola, 17:30ean.

HERNANI Kontzertua Hernani Musika Eskolako akordeoi

ikasleek emanaldia eskainiko dute. La Milagrosa, 17:30ean.

ANDOAIN Antzerkia Teatro de Barrio taldeak *Masacre: Una historia del capitalismo español* lana taularatuko du. Gaztelaniaz. Sarrera, 12 euro. Bastero kulturgunea, 21:30ean.

USURBIL Kafe Tertulia *Emakumeoi gure sexualitatearen inguruan ezkutatu zaiguna* kafe tertulia egingo da. Usurbilgo Gazte Mugimenduak antolatua. Potxoenea, 22:00etan.

LARUNBATA 19

LASARTE-ORIA Udaberri festa Aterpea Merkatarri elkarteak bere 25. urteurrenetako ekintzekin jarraikiz, Udaberri festa antolatu du:

11:00etatik 13:00etara Ttirriki Ttarraka, kaleetan zehar.

12:00etan, Kukuka.

12:30ean, Xumela.

12:30ean, Barbakoa.

13:00etan, Dantza Plaza.

11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara, Txu-txu trenaren herrian zehar. Geldialdia Okendo plazan. Okendo plaza, egun osoa.

LASARTE-ORIA Martxa *Eta zuk? Zergatik eta zertarako erabaki nahi duzu?* martxa eta ekitaldia. Gure Esku dago ekimenak antolatua. Kotxeretako zubipetik, 18:00etan

LASARTE-ORIA Bakarriketa Ismael Galanen bakarriketaz

ZINEMA

ANDOAIN

BASTERO
La casa torcida
Larunbata: 19:30, 22:00.
Igandea: 19:30.
Astelehena: 19:30, 22:00.

DONOSTIA

ANTIGUO BERRI
Deadpool2
Ostirala: 17:15, 19:45, 22:15.
Larunbata: 16:30, 18:45, 20:00, 22:30.
Igandea: 16:30, 18:45, 20:00, 22:30.

Roman J. Israel, Esq.

Ostirala: 17:00, 19:30, 22:00.
Larunbata: 17:00, 19:30, 22:00.
Igandea: 17:00, 19:30, 22:00.

Custodia

compartida
Ostirala: 17:00, 19:30, 22:00.
Larunbata: 19:30, 22:00.
Igandea: 19:30, 22:00.
Mi familia del norte
Ostirala: 17:30, 19:45, 22:15.
Larunbata: 16:45, 20:30, 22:30.

Igandea: 16:45, 20:30, 22:30.
Vengadores: Infinity War
Ostirala: 18:00, 21:00.
Larunbata: 18:45, 21:45.
Igandea: 18:45, 21:45.

Verdad o reto
Ostirala: 17:15, 19:30, 22:15.
Larunbata: 16:30, 18:30, 21:00, 23:00.
Igandea: 16:30, 18:30, 21:00, 23:00.
Operación: Huracán
Ostirala: 21:30.

Larunbata: 22:30.
Igandea: 22:30.
Campeones
Ostirala: 17:00, 18:30, 19:30, 22:00.
Larunbata: 17:00, 18:00, 19:30, 22:00.
Igandea: 17:00, 18:00, 19:30, 22:00.
Noche de juegos
Ostirala: 16:30.
Larunbata: 20:30.
Igandea: 20:30.

gozatuko aukera izango da Umorearen gauean. Sarrera doakoa. Aben kafe-antzoia, 00:00etan.

HERNANI Lore eta landare azoka

V. Lore eta landare azoka antolatua da. Postuez gain, haurrentzako tailerrak izango dira. Urbieta kalea, 10:00etatik 14:30era.

DONOSTIA Rock-kontzertua

Haurrentzako zinemaz eta helduentzako rock-kontzertuaz gozatuko dute hurbiltzen direnek. Santa ikastetxea, 17:00etatik 19:30era.

USURBIL Mihiluze

Mihiluze saioa egingo dute. Usurbilgo

Gazte Mugimenduak antolatua. Askatasuna plaza, 19:30ean.

IGANDEA 20

USURBIL Sagardo eguna

37. sagardo eguna ospatuko da. Sagardo lehiaketa, dastaketa eta hainbat ekintza egingo dira. Usurbil, egun osoa.

BURUNTZALDEA Errezitaldi musika

Buruntzaldeko Sarek antolatuta Errezitaldi kulturala eskainiko da: musika, antzerkia... 10:30ean aterako da Lasarte-Oriako taldea San Pedro eliza ondotik. Santa Barbara, 12:00etan.

HILBERRIA

Haurtzaroa aberritzat zuen Antontxori agur

Antonio Mercero zinemagile lasarteoriarra maiatzaren 12an zendu zen, 82 urte zituela. 'Verano azul' eta 'Farmacia de guardia' serieek egin dute ezaguna Espainia osoan. 2006. urtean 'Baserri galduak' dokumentala estreinatu zuen Lasarte-Orian

Txintxarri

Alzheimerraren aurkako borroka luze baten ondoren, Lasarte-Oriak emandako zinemagile ospetsuenetarikoa zendu da. Antontxo, bertako lagunak ezagutzen zuten bezala, 1936an jaio zen, eta zinemagintzan bizitza luze eta emankorra izan du. Batez ere 1970eko hamarkadatik aurrera ekoiztitzako ikus-entzunezkoek eman diote sona. Horiekin hainbat sari eskuratu ditu, Emmy entzutetsua, besteak beste. 2006. urtetik ez du agerpen publikorik egin, gaixo zegoen eta. Urte horretan, Lasarte-Oriako ondare kulturala mantendu nahian, *Baserri galduak* dokumentala grabatu eta estreinatu zuen.

Kulturaren munduak doluminak agertu ditu. Baita Lasarte-Oriako Udalak ere. Haren izena eman diote udaletxe ondoko plaza eta erakusketa aretoari. Bertan, udalak jakitera eman duenez, Antonio Merceroren lanen museo birtuala izango da ikusgai.

TXINTXARRI-k 1994. urtean zinemagileari elkarrizketa egin zion. *Haurtzaroa aberritzat duen pertsona orekatua* izenburupean, bere bizitza pertsonaleko hainbat kontu azaldu zituen.



Antonio Mercero 2003. urteko irudian. TXINTXARRI

Bertan bere burua biluztu zuen herriko zinemagileak. "Antontxo benetakoa, barruko Antxon litzateke. Antonio Mercero, berriz, pertsona publikoa da," esan zuen.

Gaztetan bere parodiekin jendea barrez lehertzen omen zen. Hori dela eta, zinemagilea izatea erabaki zuen. "Aktoretzan ari nintekeen, baina istorioak kontatzea interesgarriagoa iruditu zitzaidan".

Lasarte-Oriari lotua zegoen. Izan ere, haurtzaroko oroitzapenek garrantzia handia zuten beretzat. "Hemen dago nigan gehien

baloratzen dudanaren zati garrantzitsu bat. Horregatik hona itzultzea beti gustatzen zait".

Oroitzapen horiek bere lanerako baliagarri izan ziren. "Nik haurtzaroa gizaki ororen aberri modura ulertzen dut", nabarmendu zuen.

Honez gain, bere amets, ilusio eta helburuak beteak zituela adierazi zuen. "Zoriontsua naiz kamera baten atzean. Horregatik sentitzen dut nire ilusioa bete dela. Seguruago sentitzen naiz nire lanean bizitza errealearen aurrean baino".

Ibilbidea eta sariak

Zinema eta dokumentalak

- La oveja negra (1960)
- Trotín Troteras (1962)
- Lección de arte (1962)
- Se necesita chico (1963)
- Tajamar (1970)
- Elegía por un circo (1970)
- Ritmos postales (1970)
- Hábitos de compra (1972)
- Los pajaritos (1974)
- Don Juan (1974)
- Manchas de sangre en un coche nuevo (1975)
- Las delicias de los verdes años (1976)
- La Gioconda está triste (1977)
- La Guerra de papá (1977)
- Tobí (1978)
- Picasso insólito (1982)
- La próxima estación (1982)
- Buenas noches, señor monstruo (1982)
- Esperame en el cielo (1988)
- El tesoro (1988)
- Don Juan, mi querido fantasma (1990)
- La hora de los valientes (1998)
- Planta 4ª (2003)
- Baserri galdua (2006)
- ¿Y tú quién eres? (2007)

Telebista

- Crónicas de un pueblo (1971-1973)
- La cabina (1972)
- Este señor de negro (1975-1976)
- La noche del licenciado (1979)
- Verano azul (1981-1982)
- Turno de oficio (1986-1987)
- Farmacia de guardia (1991-1995)
- La habitación blanca (2000)
- Manolito Gafotas (2004)



Film eta telesaien sariak

- Donostiako Zinemaldiko Urrezko Maskorra (1962, Lección de Arte)
- Ondas Saria (1972, 1973 eta 1992)
- Emmy Saria (1973, La cabina)
- Moskuko film jaialdian epaileen sari berezia (1999, La hora de los valientes)
- Tolosako Cinespaña jaialdiko ikusleen saria (1999, La hora de los valientes)
- Miamiako Film Hispanoen jaialdiko zuzendari onena saria (2000, La hora de los valientes)
- Montrealeko Film jaialdian zuzendari onena saria eta ikuslearen saria (2003, Planta 4ª)
- Hamburgoko Film jaialdiko saria (2003, Planta 4ª)
- Giffoni Film jaialdiko Urrezko Gryphon saria eta Michel saria (2003, Planta 4ª)
- Malagako Film jaialdiko aipamen berezia (2003, Planta 4ª)

Bestelako sariak

- Urrezko danborra (1996)
- Arte Ederretako Urrezko domina (1997)
- Telebistako akademiaren saria (2002)
- Ohorezko Goya Saria (2010)

TTAKUNEK KUDEATZAILEA BEHAR DU

Elkartearen kudeaketaz, plangintzaz, antolakuntzaz eta jardun-ekonomikoaren kontrolaz arduratzeko. Baliabideak optimizatuz, plan estrategikoa garatuz...

- **Ezinbestekoa:**
 - Euskara eta gaztelera ahoz eta idatziz menperatzea.
 - Goi-mailako ikasketak izatea (goi-mailako zikloa, diplomatura, gradua, lizentziatura).
 - Talde gidaritzan eta euskalgintzan eskarmentua.
- **Baloratuko da:**
 - Antolakuntza, komunikazioa, lantaldeen koordinaziorako eta giza harremanetarako gaitasuna.
 - Taldean lan-egiteko gaitasuna.
 - Egitasmo berriak sortu eta proposatzeko gaitasuna.
 - Euskara C1 edo C2 izatea.
 - Ekonomia ezagutzak: diru-laguntzetan eskarmentua, zuriketak, aurrekontuak...
 - Ofimatika ezagutzak.

